

hura akuilu haiekin errekuera zi-  
tekeelako ustean oraindik" (60 or.).

Eta gero leialtasunaren inguru-  
ko kezka eta mindurak, nahiz  
leialtasun horiek nabarrak izan, eta  
ez maiteminduen andanan ematen  
direnak soilik... Horregatik iraun-  
kortasunak egiten du gogoeta:  
"Bai; gurean iraunkortasuna beti-  
danik balore bat izan da, arnegatu  
honen ahoan entzuteari barregarria  
baderitzozu ere..."(93). Ia ohitura  
bat —arbasoetatik gerokoetara lu-  
zatua— litzateke balore hori.  
"Leialtasunak lotzen gintuen elka-  
rri, estu-estu lotu ere, honezkero  
konturatua egongo zarenez. Gu  
juntatu egiten ginen, zuri azaleko  
eta arina irudituko zaizun modu  
xelebre batean betiere, baina lotura  
ikaragarria zegoen gure artean, ia-  
ia patologikoa kasu batzuetan"  
(103 or.).

Era berean, liburuan zehar sen-  
timenduak xalo eta natural jal-  
gitzen dira, giza esperientziaren al-  
deak ahalik eta aberatsenen  
isladatuz. Eleberri osoan, barnekoi-

tasun aipatua, kanpotik eta azpitik  
doan hari datualaren ondoan doa,  
nobela inoiz ere tragiko, ikaragarri,  
barroko edo uholdetsu azaltzen ez  
delarik. Mikelen militantzia, kartzela,  
tortura eta beste gatazkak ele-  
mentaltasun baten ildotik eskaint-  
zen dira, datu gehiegi eman gabe,  
barnetik doan mintzoa nagusi iza-  
ki, narrazio beraren kanpo ar-  
datzetatik kasik aterea.

Hasieran esan dugunez, nobela  
aski intimista baten aitzinean gau-  
de, argudio datualak behar adina  
eskaintzen ez direla. Autorearen as-  
moak interpretatuz, esan dezakegu  
eleberri honetan, errealismoa albo-  
ra utzita, existentziaren aldarreen  
ausnarketa-maila, gogoeta eta inti-  
mizazio aldeak garatu nahi izan di-  
rela, eta autoreak lortu bide duela  
—modu batean— asmo hori. Orri  
batzuetan idazkeraren joera errepi-  
kakor eta gogoetatsuak asperrera  
jotzen du, baina makur hori oso  
errealista —edo akzioz oso betea ez  
den— edozein narraziori gerta da-  
kioke.

Luis Mari MUJICA

HENRIETTE WALTER, *La aventura de las lenguas en Occidente: Su origen, su historia y su geografía*. 22 x 15 zm., 531 orr. Zenbait mapa eta eskala ditu. Colección Espasa de la Lengua. Madrid, 1997.

Liburu hau 1994an Parisen Edi-  
tions Robert Laffont etxeak argitara  
eman zuen *L'Aventure des Langues  
en Occident: leur origine, leur histoire,  
leur géographie* da, Berta eta  
Mercedes Corrales gaztelarara itzu-

lia. Hasteko André Martineten  
hitzaurre labur bat darama aurkez-  
penez eta Espainiako edizio honi  
Ma. Antonia Martí-ren oharra.

Izenburuak berat dioenez, orota-  
rik badu liburu honek. Sarrerakoan,

egileak berak aitortzen du historiaz ezagutzen ditugun kelta, grekera, latina, eslaviarra, germaniarra eta gainerako hizkuntzak heurak baino lehenagokoa dugula euskara. Gainera, 15. orrialdean jartzen duenez: "... el vasco, la única lengua preindoeuropea que sobrevive en un pequeño territorio situado a caballo entre Francia y España". Antzinako egoera adierazten du. Baina sustriaiak aztertzean indoeuropearrak soilik erabiltzen ditu, euskararen jatorririk eman ezinez noski.

Grekeraren historia eta kultur eragina eta kelten hedakundea aztertu ondotik latinera jotzen du, jarraian hemendik sortaraziak adierazteko. Ondotik datoz Italia, Espainia, Portugal eta Frantzia. Horietako eskualde bakoitzean antzina zer mintzatzen zenaren berri emanaz eta erromarren eraginez gaur egundora nola etorriak diren. Historiako une batzuk aski zehatz emanaz, erromar geografoen berrietan lekukotuz.

Euskararekikoa gehienbat Espainia eta Frantziako kapituluetan dator, bereziki 195-199. orr. eta 247-249. orr. Euskaraz mintzo direnak, Espainia partean 600.000 eta Frantzia partean 80.000 omen, guti gora-behera. Mende honen hasieran sortu omen ziren hegoaldeko ikastolak eta 1969an ifarraldean Seaska elkartearen eraginez.

Orokorki informaketa egokia eskaintzen digula esango nuke; baina bada bitxikeririk ere, hipoko-

ristikoak erabiltzeko zaletasuna omen dugu, eta 198-199. orrialdean ematen ditu hortaz zenbait adibide. Ez dut uste euskaldun guziori leporatzekoa denik. Jokera hori bada Donostia aldean, baina euskaldunik gehienoi bitxia iruditzen zaigu. Euskararik ez dakiteneke, nolabai euskaraganako maitasuna erakutsi nahirik edo, oso zaleak dira dakizkiten hitz soilak haurrentzako bezala hipokoristiko eran erabiltzearena. Baina ezinenezake orokortzat har.

Irakurgarria da 271. orrialdean Frantzian eskualdeetako hizkuntzen alde dakarren taula. Han datorrenez, besteak beste, 1951ko urtarrilean onartu zen Loi Deixonne delakoa legea, Estaduko hizkuntzetarik bretoina, euskara eta katalana ezik, horrez gainera okzitano dialektoentzat, bakoitzari bere eskualdean laguntzea agintzen zuena. Horrez gainera, François Mitterrand-ek 1981eko maiatzean, presidentetarako hautezkunde programan eskaintzen zuena, Estaduko hizkuntz eta kultura desberdinak errespetatzeaz gainera irakatsiak ere izango zirela eta 1982ko ekainaren 21ean irikita utzi zituen hizkuntz eta eskualdeetako kultura bereziak irakastea. Urtebete geroago, 1983ko maiatzaren 26an agertu zen *Journal officiel* hartan Unibertsitate aurreko hezkuntzetan irakastea, heuren artean euskara aipatuz. Baina, hori aurrera eramateaz ez ziren ahalegindu. Eta Baionan 1969tik Seaska de-

ritzan elkarreak ireki zituen Ikas-tolak pribatuak izaki eta ez administrazarenak. Beraz, eskola libreetarako uzten dute baina gobernuak bere lepotikako jabetasunik gabeak.

Horrez gainera, liburu horrek ez ekarriarren, jakin beharrezkoa zaigu 1992an Europako Kontseiluak herrialdeetako hizkuntz gutituei buruz prestatu zuen gutunari Frantziak betoa jarri ziola eta oraindik hor dagoela geldia. Garai haretan, hizkuntza bat baino gehiago genituen arartekoak Alemaniako parlamentoak deituak izan ginen,

bakoitzak geure iritzia eman zeza-gun. Ongi iritzi ez ezik lehenbait lehen plazaratzea eskatu genuen, baina hara hor politikoen maltzurkeria, batek betoa jarri eta besteek isil.

Ez naiz luzatuko beste hizkuntzetara, baina gainerakoa ere interesgarria deritzat Europaren erdialdea ez ezik ifarraldeko hizkuntzen egoera ere ezagutu dezagun.

Bibliografia aberatsa dakar eta atzekaldea daraman aurkibidea ere bai.

*J. San Martin*

ESTORNES LASA, Bernardo. *Diccionario español-uskara roncalés. Erronkariko uskararen hiztegia*. 24 x 15,5 zm., 500 orr. Nafarroako Gobernu. Hizkuntza eta Kultura Departamentua. Iruña, 1997.

Bernardo Estornés jaunaren *Memorias* zeritzan liburuari, *Egan 3/4* alearen 252-254. orrialdeetan, erreseña egin nionean uste nuen hura bere bizitza zehar etengabeko lanaren bukaerakoa zela, baina bai zera, bere bilketa oraindik hustu gabe zuen eta hara non eskaini digun hiztegi hau.

Gaztarotik bilduz hasi zenaren fruitu heldua dugu, milaka hitz eskaintzen dituena. Eta, ez nolana hiko lana, oso baliagarria baizik. Gure mende honetan galdu zaigun euskalkiaren lekuko eta bertan jasotzen duen erran bati jarraituz irakurleari esan niezaioke: "Libru

zarradituak ezdu ñori ere eratsukitan". Beraz, euskaltzaleon artean ez dadila holakorik gerta liburu honenkin, aberasgarria denez, merezi bai du noizbehinka kontsultarako bederen begiratzea.

Norbaitek esan dezake, bertako "uskara" galdu ondoren, ea hiztegi horrek zertarako laguntzen digun; baina horri erantzunik egokiena Tomás Yerro eta Fernando Pérez de Viñaspre jaunek beraien aurkezpenean ematen dute, ongi dioten bezala: "Bizitzaren eguneroko egitekoetan eta komunikazioan baliagarri izan dadin, euskarak behar du euskalkien indar bizi-